

KANON DIGITALAREN TESTA

- ❶ Zure ordenagailuko datuen segurtasun kopia CD batetan egiten baduzu, zenbat bider ordaintzen duzu kanona?
- Behin ere ez, nire fitxategi pertsonalek kanon digitalarekin inolako zerikusirik ez bait dute.
 - Behin, kanona CDaren prezioan sartuta bait dago, eta ez du axola zertarako erabiltzen duzun.
- ❷ Zure ilobaren bataioan argazkiak egiten badituzu zure argazki kamera berriarekin eta gero CD batetan gordetzen badituzu, zenbat bider ordaintzen duzu kanona?
- Behin ere ez, argazki pertsonalek kanon digitalarekin inolako zerikusirik ez bait dute.
 - Behin, argazkiak CD batetan grabatu bait ditut eta kanona beti ordaintzen da.
 - Birritan, argazkiak CD batetan grabatu ditudalako eta urtarrilaren 1etik aurrera erositako argazki kameraren memoriak ere kanona dutelako.
- ❸ Zure ilobaren bataioan bideoa uzten badizute eta DVD batetan grabatzen baduzu kopia bat izateko, zenbat bider ordaintzen duzu kanona?
- Behin ere ez, nire iloba ez bait da EEEOk (SGAE) bazkidea.
 - Behin ere ez, bideoa ez dudalako CD batetan grabatu, DVD batetan baizik.
 - Behin, DVDeke ere kanona daukatelako.
- ❹ Musika disko original bat erosten baduzu eta CD batetan kopia bat egiten baduzu, musika autoan ere entzun ahal izateko, zenbat bider ordaintzen duzu kanona?
- Behin ere ez, diskoa originala delako eta inor konpentsatu beharrik ez dudalako.
 - Behin, abestiak CD batetan grabatu bait ditut eta kanona beti ordaintzen da.
- ❺ Musika disko original bat erosten baduzu eta abestiak zure MP3 berrira kopiatzen badituzu, kirola egiten duzunean edo ikastera/lanera zoazen bitartean entzun ahal izateko, zenbat bider ordaintzen duzu kanona?
- Behin ere ez, diskoa originala delako eta inor konpentsatu beharrik ez dudalako.
 - Behin, urtarrilaren 1etik aurrera MP3 entzugailuek ere kanona dutelako.
- ❻ Zure mugikor berrirako kanta bat erosten baduzu, zenbat bider ordaintzen duzu kanona?
- Behin ere ez, kalitatea oso txarra delako.
 - Behin, kantuaren prezioan kanona barne dagoelako.
 - Birritan, kantuaren prezioan kanona barne dagoelako eta urtarrilaren 1etik aurrera mugikorrek ere kanona dutelako.
- ❼ Internetetik Creative Commons lizentziadun musika jaisten baduzu (adibidez jamendo.com webgunetik edo taldearen webgunetik) eta CD/DVD/MP3/MP4/PDA batetan grabatzen baduzu, zenbat bider ordaintzen duzu kanona?
- Behin ere ez, musikaren egileak berak musika kopiatua izan dadin espresuki lagatzen duelako.
 - Behin, aipatutako euskarri eta aparagailu guztiek kanona prezioan barne dutelako.

SOLUZIOAK: 1-b, 2-c, 3-c, 4-b, 5-b, 6-c, 7-b. Kasu hauetan esaten den guztia egiten baduzu, bidezkoa kanona behin ordaintzea izango litzateke (mugikorrarentzako kanta erostean), baina praktikan kanona 9 bider ordaintzen duzu.